ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**
2020ko ekainaren 12a, ostirala • 66 zk.

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

## BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

**“A-625 errepidea 359,650 kilometrotik (Amurrioko ekialdeko saihesbidearen hasiera) 354,22 kilometrora (Bizkaiko muga) egokitzeko proiektua”k eragindako ondasun eta eskubideak behin betiko onartzea eta apaitutako proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen titularrei dei egitea okupazioaren aurreko aktak, okupazio aktak eta balio justua ezartzearen aktak egiteko egintzara**

Foru Gobernu Kontseiluak, 2020ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, 221/2020 Erabakia onartu du. Hona hemen horren testua:

“Nahitaez okupatu beharreko azalera handitzea, proiektu honen linea elektrikoaren aldaketa egikaritzeko: “A-625 errepidea 357,30 kilometro puntutik 354,22 kilometro puntura egokitzeko eraikuntza proiektua, zeina baita A-625 errepidea 359,65 kilometro puntutik 354,22 kilometro puntura egokitzeko eraikuntza proiektu aldatuaren proiektu xehatua.”

Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 14ko 842/2010 Erabakiaren bidez, onespena eman zitzaion “A-625 errepidea 359,650 kilometro puntutik (Amurrioko ekialdeko saihesbidearen hasiera) 354,22 kilometro puntura (Bizkaiko muga) egokitzeko trazadura proiektu aldatua”k eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrendari, eta haiek okupatu eta eskuratu beharra deklaratzeari, desjabetu eta aldi batean okupatzeko, eta zortasunak ezarri, aldatu edo iraungiarazteko.

Ondoren, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 9ko 345/2013 Erabakiaren bidez, behin betiko onetsi zen “A-625 errepidea 357,30 kilometro puntutik 354,22 kilometro puntura (Bizkaiko muga) egokitzeko eraikuntza proiektua, zeina baita A-625 errepidea 359,650 kilometro puntutik (Amurrioko ekialdeko saihesbidearen hasiera) 354,22 kilometro puntura (Bizkaiko muga) egokitzeko eraikuntza proiektu aldatuaren proiektu xehatua”, eta, halaber, bere horretan utzi zen proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen zerrendaren behin betiko onespena (I. eranskina).

Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 52. artikuluan araututako presazko prozeduraz izapidetu da desjabetu beharreko lursailen okupazioa.

Administrazio honetako Errepide Zerbitzuak txostena eman du 2020ko maiatzaren 6an, proiektuaren linea elektrikoa aldatzeari buruz, eta honako hau adierazten du:

“Aipatutako proiektua dela eta, eta energia elektrikoko instalazioak garraiatu, banatu, merkaturatu, hornitu eta baimentzeko prozedurak arautzen dituen 1955/2000 Errege Dekretuaren 154. artikuluan ezarritakoaren babesean, Arabako Foru Aldundiak Red Eléctrica de España SAUri eskatu zion 220 kV-ko linea aldatzeko (Hodien 2-Tubacex-eko 1/T hodien T zirkuitu bikoitza), proiektu horren eragin zona aipatutako linea elektrikoarekin arautzeko, han aldaketa bat egin behar delarik 11 euskarriaren eta Tubacex-en azpiestazioaren arteko tartean, Amurrioko udalerrian (Araba), eta horrek linea elektrikoaren egungo trazadura aldatu beharra dakar.

“A-625 errepidea 357,30 kilometro puntutik 354,22 kilometro puntura (Bizkaiko muga) egokitzeko eraikuntza proiektua, zeina baita A-625 errepidea 359,650 kilometro puntutik (Amurrioko ekialdeko saihesbidearen hasiera) 354,22 kilometro puntura (Bizkaiko muga) egokitzeko eraikuntza proiektu aldatuaren proiektu xehatua” Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 9ko 345/2013 Erabakiaren bidez onetsi zen, eta hartarako, proiektu horrek jasotzen zuen okupatu beharreko lursailak okupatu behar zirela, eta hala egin zen, baina proiektu horrek ere jasotzen zuen kaltetutako zerbitzu hori leheneratu beharra zegoela.

Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 17ko 164/2020 Erabakiaren bidez, onespena eman zitzaion L/220 kV-ko linearen Tubacexen T-11-SE tartea aldatzeari (Hodien 2-Tubacex-eko 1/T hodien T zirkuitu bikoitza), zeina eragin baitzuen proiektu honek: "A-625 errepidea 357,30 kilometro puntutik 354,22 kilometro puntura (Bizkaiko muga) egokitzeko eraikuntza proiektua, zeina baita A-625 errepidea 359,650 kilometro puntutik (Amurrioko ekialdeko saihesbidearen hasiera) 354,22 kilometro puntura (Bizkaiko muga) egokitzeko eraikuntza proiektu aldatuaren proiektu xehatua", bat etorriz L/220 kV-ko linearen Tubacexen T-11-SE tartea aldatzeko azterlan tekniko-ekonomikoarekin (Hodien 2-Tubacex-eko 1/T hodien T zirkuitu bikoitza), Red Eléctrica de España SAUk bidalia; halaber, erreferentziazko linea elektrikoaren aldaketa gauzatzeko baldintzei ere onespena eman zitzaien, zeinak Foru Gobernu Kontseiluaren erabaki horren eranskin gisa ageri baitira.

Hona hemen aldaketa gauzatzeko baldintza teknikoetarik batzuk:

"1.1. Red Eléctricak egingo du esklusiboki garraio linearen trazaduraren aldaketa, Sektore Elektrikoaren abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 34.2. eta 36. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz.

1.2. Garraio linearen trazadura aldatzeko, hauexek beteko dira: Red Eléctrica de España SAUren arau bereziak; Sektore Elektrikoaren abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 59.2 artikulua; garraio, banaketa, merkaturatze eta hornidura jarduerak eta energia elektrikoa baimentzeko prozedurak arautzen dituen abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuaren 154. artikulua, otsailaren 15eko 223/2008 Errege Dekretuak onetsitako Goi Tentsioko Aireko Lineen Arautegia eta proiektuari aplikagarri zaion arauzko araudi teknikoa.

1.3. Garraio linearen trazadura aldatzeko, honexek ezarritako trazadura eta ezaugarri teknikoak izango dira kontuan: "L/220 kV-ko linearen Tubacexen T-11-SE tartea aldatzeko azterlan tekniko-ekonomikoa (Hodien 2-Tubacex-eko 1/T hodien T zirkuitu bikoitza)", zeina Red Eléctrica de España SAUk 2019ko 4an eta 26an aurkeztu baitzion Administrazioari, eta zeina martxoaren 17ko 164/2020 Erabakiaren bidez onetsi baitzen".

Halaber, ezartzen da ezen, aldaketa egiteko, Administrazioak hainbat baldintza bete behar dituela, besteak beste:

"Instalazioaren trazadura berria ezartzeko lursailak Red Eléctricaren esku jartzea, haren alde energia elektrikoko bide zortasuna eratuz, haren erabilera baketsua bermatuta; bai eta jabari publikoa okupatzeko edo obrak egiteko eman beharreko baimenak ematea ere, hala badagokio".

Ikusita zer xedatzen den Red Eléctricak bidaliriko dokumentazioan ("L/220 kV-ko linearen Tubacexen T-11-SE tartea aldatzeko azterlana (Hodien 2-Tubacex-eko 1/T hodien T zirkuitu bikoitza)", martxoaren 17ko 164/2020 Erabakiaren bidez onetsia), lehendik egindako desjabetzea ez da nahikoa, argi eta garbi, birjarri beharreko linearen dimentsioen eta ezaugarrien arabera eta energia elektrikoaren arloan aplikagarri den legedia kontuan hartuta.

Hortaz, beharrezkoa da eragindako lurzatien desjabetzea gehiago egitea, txosten honi erantsitako taularen arabera, non lurzati horietarako ondasunen eta eskubideen zerrenda agertzen baita."

Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 15. artikuluak eta hura garatzen duen arautegiaren 15. artikuluak okupazioa handitzea eta hedatzea aurreikusten dute, eta okupatu beharreko ondasunen artean sartu daitezke aurreikus daitezkeen kasuan kasuko obra edo helburu handiagotzeetarako ezinbestekoak direnak, desjabetzea dakarren helburu, obra edo zerbitzuari loturik geratzen direla iritziz.

Gainera, esan beharra dago ezen, Nahitaezko Desjabetzearen Legeak 52. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz premiaz okupatu behar hori egikaritu beharreko proiektuen handitzeei ere aplikatu behar zaienez, bidezko dela premiazko prozedurak eragindako ondasun eta eskubideen desjabetzea handitzeko izapideei ekitea.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Horregatik, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau,

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Nahitaez okupatu beharreko azalera handitzea, proiektu honen linea elektrikoaren aldaketa egikaritzeko, eranskinean zehazten denaren arabera: "A-625 errepidea 357,30 kilometro puntutik 354,22 kilometro puntura egokitzeko eraikuntza proiektua, zeina baita A-625 errepidea 359,65 kilometro puntutik 354,22 kilometro puntura egokitzeko eraikuntza proiektu aldatuaren proiektu xehatua".

Bigarrena. Izapidetzea ondasun eta eskubide horien desjabetzea Nahitaezko Desjabetzearen Legeak 52. artikuluan jasotako presazko prozeduraren bidez.

Hirugarrena. 80.379,18 euro esleitzea, Arabako Foru Aldundiaren 2020ko aurrekontuko "Desjabetzeak" 50106.5300.6000002 partidaren kontura (xedapen erreferentzia:105-1706/000. 20.1.20), eragindako ondasun eta eskubideen balio justua dela-eta ordaindu beharreko kopuruei aurre egiteko.

Laugarrena. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak ordain dezala eragindako finkei dagokien balio justuaren kopurua. Zenbateko hori Desjabetzapen Atalaren buruak balio justua ordaintzeko proposamen txostena aurkeztu eta gero ordainduko da. Ordainketa hori lehen aipatutako xedapenaren lerro eta erreferentziaren kontura egingo da, legeak ezarritako epean.

Bosgarrena. Egintza honek administrazio bideari amaiera ematen dio, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar diezaiokezu Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, honako hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Hala ere, nahi izanez gero, lehenago, berraztertzeko errekurtsoa aurkez diezaiokezu egintza hau agindu duen erakundeari berari, hilabeteko epean, aurkatutako egintza jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Hala eginez gero, ezingo da aurkeztu administrazioarekiko auzi errekurtsorik, harik eta aurkeztutako berraztertzeko errekurtsoaz berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte (Administrazio Publikoen Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluak)."

Horren berri ematen da interesdunak jakinaren gainean jartzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, eta jakinarazten da egintza honek administrazio bideari amaiera ematen diola, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, nahi izanez gero, lehenago berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio egintza hau agindu duen erakunde berari. Horretarako, hilabete izango da aurkatutako egintza argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Hala eginez gero, ezingo da aurkeztu administrazioarekiko auzi errekurtsorik, harik eta aurkeztutako berraztertzeko errekurtsoaz ebazpen espresa eman edo ustezko ezespena gertatu arte (Urriaren 1eko 39/2015 Legearen, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenaren, 123. eta 124. artikuluak).

Halaber, dei egiten zaie honi erantsitako agirian ageri diren titularrei, Amurrioko Udaletxeko lokaletan ager daitezen, bertan jasotako egunean eta orduan, finkak okupatu ahal izateko, okupazioaren aurreko gordailua eta azkar okupatzeagatiko kalte-ordainaren kopuruak aurretik eskeiniz.

Kontzeptu horien zenbatekoa jaso nahi izanez gero, zeina behin betiko prezio justuaren kontura den, ondoko hauek aurkeztu beharko dira: eskubidea egiaztatzen duten tituluak, nortasun agiri nazionala eta ahalorde askietsia, legezko ordezkariak agertzen badira akten ekitaldira.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Ez badira onartu nahi eskainitako zenbatekoak edo ezin bada modu frogagarrian egiaztatu desjabetutako ondasunaren titulartasuna edo zein nortasunekin agertzen den, diru kopuru horiek Arabako Foru Aldundiko gordailu kutxan kontsignatuko dira, Nahitaezko Desjabetzapenari buruzko Legearen Arautegiak 58-1. artikuluan jasotakoarekin bat etorriz.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 5a

*Bide Azpiegituren zuzendaria*
*CARLOS IBARLUCEA MARTÍNEZ*



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

**Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saila**
**Departamento de Infraestructuras Viarias y Movilidad**

A-625 ERREPIDEA 357,30 KILOMETROTIK 354,22 KILOMETRORA (BIZKAIKO MUGA) EGOKITZEKO ERAIKUNTZA PROIEKTUA, ZEINA A-625 ERREPIDEA 359,65 KILOMETROTIK (AMURRIOKO EKIALDEKO SAIHESBIDEAREN HASIERA) 354,22 KILOMETRORA EGOKITZEKO TRAZADURA ALDATUAREN ERAIKUNTZA PROIEKTUAREN PROIEKTU XAHATUA BAITA
PROYECTO DE CONSTRUCCIÓN DE ACONDICIONAMIENTO DE LA CARRETERA A-625, ENTRE EL P.K. 357,30 Y EL P.K. 354,22 (LÍMITE DE PROVINCIA CON BIZKAIA), DESGLOSADO DEL DE CONSTRUCCIÓN MODIFICADO DE ACONDICIONAMIENTO DE LA CARRETERA A-625, ENTRE EL P.K. 359,65 (INICIO DE LA VARIANTE ESTE DE AMURRIO) Y EL P.K. 354,22.

ESP./EXPTE. 06/217-D

| FINKAREN ZK. / Nº FINCA | TITULARRAREN IZENA / NOMBRE DEL PROPIETARIO | KATASTROKO DATUAK / DATOS CATASTRALES: POLÍGONOA / POLÍGONO | LURSAILA / PARCELA | UDALA / AYUNTAMIENTO | APROBETXAMENDUA / APROVECHAMIENTO | ERAGINDAKO ONDASUNA / BIEN AFECTADO | ERAGINDAKO AZALERA M2 / SUPERFICIE AFECTADA M²: BEHIN-BETIKOA / DEFINITIVA: APOYOS | SUP. APOYOS Y ANILLO DE TIERRA | B. BEHINEKOAN / TEMPORAL: OCUPACION TEMPORAL | SUP. TALA | ZORTASUNA / SERVIDUMBRE: ZONA DE SEGURIDAD | SERVIDUMBRE DE VUELO | ACCESO AL APOYO | SERVIDUMBRE DE PASO (ACCESO) | EGUNA / DÍA | ORDUA / HORA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 50/080 | IBARROLA LEIBAR, Joseba | 7 | 552 | AMURRIO | ZELAIA PRADERA | | | 0 | 0 | 0 | 184 | 10 | | 0 | 29/6/20 | 10:00 |
| 53/290 | ALDAMA IBARROLA, Juan José | 7 | 553 | AMURRIO | ZELAIA PRADERA | | | 0 | 0 | 0 | 449 | 717 | | 0 | 29/6/20 | 11:30 |
| 54/200 | ALDAMA IBARROLA, Juan José | 7 | 555 | AMURRIO | ZELAIA PRADERA | | | 0 | 0 | 0 | 254 | 454 | | 0 | 29/6/20 | 11:30 |
| 56/200 | ALDAMA IBARROLA, Juan José | 7 | 316 | AMURRIO | ZELAIA PRADERA | | | 0 | 0 | 0 | 655 | 1011 | | | 29/6/20 | 11:30 |
| 58/100 | ALDAMA IBARROLA, Juan José | 7 | 314 | AMURRIO | ZELAIA PRADERA | | | 0 | 0 | 0 | 279 | 253 | | 0 | 29/6/20 | 11:30 |
| 78/100 | ARRANZ UGARTE, Pedro María y Dolores | 7 | 120 | AMURRIO | ZELAIA PRADERA | | | 0 | 0 | 0 | 306 | 157 | | 0 | 30/6/20 | 10:00 |
| 79/100 | OLABARRIETA ACHA, Dominga | 7 | 119 | AMURRIO | ZELAIA PRADERA | | | 0 | 0 | 0 | 344 | 228 | | 0 | 30/6/20 | 10:45 |
| 53/100 | ALDAMA ZULUETA, Luis | 7 | 551 | AMURRIO | ZELAIA PRADERA | | | 0 | 0 | 0 | 381 | 669 | | 0 | 30/6/20 | 12:00 |
| 58/190 | ALDAMA ZULUETA, Luis | 7 | 313 | AMURRIO | ZELAIA PRADERA | | | 0 | 0 | 0 | 208 | 201 | | 0 | 30/6/20 | 12:00 |
| 59/200 | ALDAMA ZULUETA, Luis | 7 | 125 | AMURRIO | ZELAIA PRADERA | | | 0 | 147 | 0 | 568 | 129 | | 0 | 30/6/20 | 12:00 |
| 50/100 | ALDAMA ZULUETA, Benedicta | 7 | 713 | AMURRIO | ZELAIA PRADERA | | | 0 | 112 | 10 | 622 | 337 | T-15 | 0 | 1/7/20 | 10:00 |
| 50/190 | ALDAMA ZULUETA, Isabel | 7 | 712 | AMURRIO | ZELAIA PRADERA | | T-15 | 22 | 255 | 0 | 75 | 26 | T-15 | 0 | 1/7/20 | 10:45 |
| 106/150 | BERGANZA BORDAGARAY, Pedro | 7 | 286 | AMURRIO | ZELAIA PRADERA | | T-12 | 46 | 711 | 0 | 245 | 6 | T-12 | 122 | 1/7/20 | 12:00 |
| 106/170 | BERGANZA BORDAGARAY, Pedro | 7 | 278 | AMURRIO | ZELAIA PRADERA | | T-12 | 7 | 120 | 0 | 181 | 619 | T-12 | 0 | 1/7/20 | 12:00 |
| 93/100 | BERGANZA BORDAGARAY, Pedro | 7 | 300 | AMURRIO | ZELAIA PRADERA | | | 0 | 23 | 0 | 60 | 8 | | 0 | 1/7/20 | 12:00 |
| 76/100 | BERGANZA MELERO, Alberto | 7 | 122 | AMURRIO | ZELAIA PRADERA | | | 0 | 284 | 0 | 346 | 6 | | 0 | 2/7/20 | 10:00 |
| 107/180 | BERGANZA MELERO, Miren Garbiñe | 7 | 287 | AMURRIO | ZELAIA PRADERA | | | 0 | 38 | 0 | 368 | 0 | | 0 | 2/7/20 | 10:45 |
| 107/190 | ALDAMA ALBISUA Jesus Luis | 7 | 289 | AMURRIO | ZELAIA PRADERA | | | 0 | 0 | 0 | 688 | 451 | | 0 | 2/7/20 | 12:00 |
| 97/100 | GASTACA URRUTIA, Margarita<br>GASTACA OYARZABAL, J. María | 7 | 299 | AMURRIO | ZELAIA PRADERA | | | 0 | 0 | 0 | 614 | 189 | | 0 | 2/7/20 | 12:45 |
| 61/200 | GASTACA OYARZABAL, J. María | 7 | 124 | AMURRIO | ZELAIA PRADERA | | T-14 | 64 | 387 | 0 | 187 | 0 | T-14 | 25 | 2/7/20 | 13:15 |
| 55/100 | DE LARREA JIMENEZ BRETON Matilde Daniela, M. Carmen y M. Luz Gregoria<br>LARREA ZULUETA Alberto | 7 | 556 | AMURRIO | ZELAIA PRADERA | | | 0 | 0 | 0 | 243 | 421 | | 0 | 3/7/20 | 10:00 |
| 106/140 | RUIZ CORNES, J. Miguel | 7 | 285 | AMURRIO | ZEREALA CEREAL | | | 0 | 0 | 0 | 368 | 0 | | 0 | 3/7/20 | 10:45 |
| 90/100 | ORUE SAN SEBASTIAN, Blanca Rosa | 7 | 114 | AMURRIO | ZELAIA PRADERA | | | 0 | 0 | 0 | 279 | 0 | | 0 | 3/7/20 | 12:00 |

| FINKAREN ZK. / Nº FINCA | TITULARRAREN IZENA / NOMBRE DEL PROPIETARIO | KATASTROKO DATUAK / DATOS CATASTRALES: POLÍGONOA / POLÍGONO | LURSAILA / PARCELA | UDALA / AYUNTAMIENTO | APROBETXAMENDUA / APROVECHAMIENTO | ERAGINDAKO ONDASUNA / BIEN AFECTADO | ERAGINDAKO AZALERA M2 / SUPERFICIE AFECTADA M²: BEHIN-BETIKOA / DEFINITIVA: APOYOS | SUP. APOYOS Y ANILLO DE TIERRA | B. BEHINEKOAN / TEMPORAL: OCUPACION TEMPORAL | SUP. TALA | ZORTASUNA / SERVIDUMBRE: ZONA DE SEGURIDAD | SERVIDUMBRE DE VUELO | ACCESO AL APOYO | SERVIDUMBRE DE PASO (ACCESO) | EGUNA / DÍA | ORDUA / HORA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 62/100 | RUIZ RUIZ DE GORDEJUELA, J. María<br>LLANO VELASCO, Mª Visitación<br>RUIZ LLANO, J. María, Sonia y Nagore | 7 | 123 | AMURRIO | ZELAIA PRADERA | | | 0 | 562 | 0 | 123 | 0 | | 0 | 3/7/20 | 12:45 |
| 92/100 | RUIZ RUIZ DE GORDEJUELA, J. Maria<br>LLANO VELASCO, Mª Visitación<br>RUIZ LLANO, J. María, Sonia y Nagore | 7 | 253 | AMURRIO | ZELAIA PRADERA | | T-13 | 64 | 1279 | 0 | 946 | 0 | T-13 | 342 | 3/7/20 | 12:45 |
| 114/020 | TECNICAS ALTO NERVION S.L.<br>GARONDO BERRI S.L. | 7 | 276 | AMURRIO | ZELAIA PRADERA | | | 0 | 153 | 0 | 185 | 834 | | 0 | 6/7/20 | 10:00 |
| 107/160 | GARONDO BERRI S.L.<br>URIA PEÑA, Laurean | 7 | 831 | AMURRIO | HIRI LUR. INDUSTRIALA S. URB. INDUSTRIAL | | T-12 | 11 | 461 | 0 | 478 | 43 | | 0 | 6/7/20 | 10:45 |
| 47/190 | TUBACEX S.A. | 7 | 603 | AMURRIO | HIRI LUR. INDUSTRIALA S. URB. INDUSTRIAL | | | 0 | 1036 | 0 | 0 | 0 | | 0 | 6/7/20 | 12:00 |
| 106/180 | ORTIZ TERCILLA, Antonio<br>SANTA CRUZ ARRIEN, Felix<br>ORTIZ DE ZARATE ORTIZ DE ZARATE, J.Luis<br>PLAZA CALABUIG, Ignacio | 7 | 284 | AMURRIO | ZELAIA PRADERA | | | 0 | 0 | 0 | 0 | 12,05 | | 0 | 6/7/20 | 12:45 |
| 107/170 | ORTIZ TERCILLA, Antonio<br>SANTA CRUZ ARRIEN, Felix<br>ORTIZ DE ZARATE ORTIZ DE ZARATE, J. Luis<br>PLAZA CALABUIG, Ignacio | 7 | 832 | AMURRIO | HIRI LUR. INDUSTRIALA S. URB. INDUSTRIAL | | | 0 | 21 | 0 | 233 | 99 | | 0 | 6/7/20 | 12:45 |
| 48/100 | SALAS LARRAZABAL, Concha, M. Pilar, M. Carmen, Mª Purificación, Ángel, M. Presentación, Jesús María y Ramón | 7 | 571 | AMURRIO | ZELAIA PRADERA | | T-15 | 181 | 428 | 48 | 145 | 0 | T-15 | 0 | 7/7/20 | 10:00 |
| 106/190 | RESPALDIZA FERNANDEZ, Miguel Angel | 7 | 288 | AMURRIO | ZELAIA PRADERA | | | 0 | 0 | 0 | 189 | 173 | | 0 | 7/7/20 | 10:45 |
| 80/100 | SOLAUN LANDALUCE, Margarita | 7 | 116 | AMURRIO | ZELAIA PRADERA | | | 0 | 0 | 0 | 916 | 607 | | 0 | 7/7/20 | 12:00 |
| 77/100 | SOLAUN LANDALUCE M. Jesus | 7 | 121 | AMURRIO | ZELAIA PRADERA | | | 0 | 0 | 0 | 248 | 65 | | 0 | 7/7/20 | 12:45 |
| 114/030 | SOLAUN LANDALUCE, J. Ignacio | 7 | 272 | AMURRIO | ZELAIA PRADERA | | | 0 | 593 | 0 | 648 | 1306 | | 0 | 7/7/20 | 13:30 |
| 51/100 | PIPAÓN ECHEVERRIA, M. Teresa | 7 | 714 | AMURRIO | ZELAIA PRADERA | | | 0 | 0 | 0 | 374 | 692 | | 0 | 8/7/20 | 10:00 |
| 47/060 | BANCO BILBAO VIZCAYA ARGENTARIA S.A. | 7 | 777 | AMURRIO | HIRI LUR. INDUSTRIALA S. URB. INDUSTRIAL | | | 0 | 68 | 0 | 51 | 1 | | 0 | 8/7/20 | 10:45 |
| 114/100 | FURUNDARENA LLANO, Sabino Daniel<br>GUERRERO YARRITU, Juan Antonio<br>FURUNDARENA LLANO, J. Cruz | 7 | 830 | AMURRIO | HIRI LUR. INDUSTRIALA S. URB. INDUSTRIAL | | | 0 | 0 | 0 | 221 | 240 | | 0 | 8/7/20 | 12:00 |
| 114/190 | SANTAMARINA GIL, M. Teresa<br>SANTAMARINA GIL, M. Emilia | 7 | 829 | AMURRIO | HIRI LUR. INDUSTRIALA S. URB. INDUSTRIAL | | | 0 | 148 | 0 | 321 | 335 | | 0 | 8/7/20 | 12:45 |
| 114/040 | ALDAMA ALBISUA, Kepa Mirena | 7 | 254 | AMURRIO | ZELAIA PRADERA | | | 0 | 933 | 0 | 27 | 98 | T-11 | 517 | 9/7/20 | 10:00 |
| 114/080 | ALDAMA ALBISUA, Kepa Mirena | 7 | 828 | AMURRIO | HIRI LUR. INDUSTRIALA S. URB. INDUSTRIAL | | | 0 | 33 | 0 | 244 | 99 | | 0 | 9/7/20 | 10:00 |
| 114/050 | PARQUES INDUSTRIALES GRAN EUROPA NORTE S.A.<br>AYUNTAMIENTO DE AMURRIO<br>ALDAMA ALBISUA, Kepa Mirena<br>HERRERA SALAZAR, Aitor<br>IBARROLA PERPIÑA, Alberto | 7 | 827 | AMURRIO | HIRI LUR. INDUSTRIALA S. URB. INDUSTRIAL | | | 0 | 506 | 0 | 0 | 5 | | 0 | 9/7/20 | 11:00 |

| FINKAREN ZK. | TITULARRAREN IZENA | KATASTROKO DATUAK | | UDALA | APROBETXAMENDUA | ERAGINDAKO ONDASUNA | ERAGINDAKO AZALERA M2 | | | | | | | | EGUNA | ORDUA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | POLÍGONOA | LURSAILA | | | | BEHIN-BETIKOA | | B. BEHINEKOAN | | ZORTASUNA | | | | | |
| | | DATOS CATASTRALES | | | | | SUPERFICIE AFECTADA M² | | | | | | | | | |
| | | | | | | | DEFINITIVA | | TEMPORAL | | SERVIDUMBRE | | | | | |
| Nº FINCA | NOMBRE DEL PROPIETARIO | POLÍGONO | PARCELA | AYUNTAMIENTO | APROVECHAMIENTO | BIEN AFECTADO | APOYOS | SUP. APOYOS Y ANILLO DE TIERRA | OCUPACION TEMPORAL | SUP. TALA | ZONA DE SEGURIDAD | SERVIDUMBRE DE VUELO | ACCESO AL APOYO | SERVIDUMBRE DE PASO (ACCESO) | DÍA | HORA |
| 114/060 | AYUNTAMIENTO DE AMURRIO | 7 | 839 | AMURRIO | HIRI LUR. INDUSTRIALA S. URB. INDUSTRIAL | | | 0 | 162 | 0 | 61 | 47 | | 0 | 9/7/20 | 12:30 |
| 114/070 | AYUNTAMIENTO DE AMURRIO | 7 | 840 | AMURRIO | HIRI LUR. INDUSTRIALA S. URB. INDUSTRIAL | | | 0 | 125 | 0 | 68 | 356 | | 0 | 9/7/20 | 12:30 |
| 47/180 | AYUNTAMIENTO DE AMURRIO | 7 | 778 | AMURRIO | HIRI LUR. INDUSTRIALA S. URB. INDUSTRIAL | | | 0 | 471 | 0 | 113 | 140 | | 0 | 9/7/20 | 12:30 |



Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2020.06.12 05:27:37 Z